

**Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala****140. zenbakia****Data 2005-07-26****15457 orria****7 UDAL ADMINISTRAZIOA****ARAMAKO UDALA****Udalerrian txabolak eraikizeko ordenantza. Behin betiko onespena.****ARAMAKO UDALA***Iragarkia*

Aramako Udalerrian **Txabolen** eraikuntzarako **ordenantza** erregulatzaileen hasierako onarpenaren aurkako erreklamazio edo iradokizunik egon ez denez, Toki Erregimeneko Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 49. artikulua c) azpitalaren azken paragrafoan zehaztutakoaren arabera, zeinari apirilaren 21eko 11/1999 Legeak gehigarri batzuk erantsi dizkion, Udalbatzak hartutako hasierako onarpena, orain behin-betiko bilakatu da. Hori horrela Toki Erregimeneko Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 70-2 artikuluan aurreikusitakoa betetzearren, **Ordenantza** horren testu oso-osoa argitaratzen da.

*Aramako Udalerriko txabolen ordenantza erregulatzailea.**1. artikulua.*

**Ordenantza** honen xedea Aramako Udalerriko osoaren eremuan, **txabolen** eraikuntza eta erabilpena antolatzea da, indarrean dauden Arau Subsidiarioran Zonalde ez-eraikigarri moduan sailkatutako alderdian salbu, alorrean espezifikokoak diren beste **ordenantzen** kaltetan gabe, udalerriarren barruan aplikatzeko garatu edo garatuko direlarik.

*2. artikulua.*

Arau subsidiarioetan hirilur bezala kalifikaturiko lurretan ezin izango dira **txabolak** eraiki, bota beharreko beste **txabola** baten ordean eraikitzen direnak salbu eta betiere Udalak **txabola** kokaturiko aldearen estetika-erantzako eta Hirigintza arautegia betetzeko onuragarria dela kontsideratzen bada.

*3. artikulua.*

**Txabolaren** kontzeptua honelaxe definitu da: Behin-behineko izaerako eraikuntza txikia, nekazal lanen laguntzailea, lanabes eta laborantza-tresnak gordetzeko xedea duenak.

*4. artikulua.*

Erabat debekaturik geldituko da **txabolen** eraikuntza eta erabilpena, etxebizitza moduan erabiltzeko, eta zuzenean nekazal iharduerekin lotuta ez dagoen beste edozein erabilerarako. **Txabolak** animaliak edukitzeko erabili ahal izango dira, jarraian espezie bakoitzerako adierazten diren animalia kopurua gainditzen ez bada: 40 hegazti, 8 koneju, 1-2 txerri, 6 ahuntz-ardi.

Animalia espezie desberdin eduki nahi badira, proportzionalki animalia buruen zenbatekoa gutxitu behar da, baimendutako abere buruak baino gehiago ez edukitzearen.

*5. artikulua.*

Lurzatien jabe bakoitzari **txabola** bat baino gehiago eraikitzea ez zaio onartuko. Egun dauden **txabolen** inbentarioa egingo da eta lehendik **txabola** eraikita dagoen lur sailetan, **txabola** berrien eraikuntza ez da onartuko aurrez zaharra botatzen ez bada. **Txabolen** eraikuntza ez da onartuko 8.000 m<sup>2</sup> azalera baino gutxiago duten finka edo lur sailetan.

#### 6. artikulua.

**Ordenantza** honen arabera **txabolak** honako neurrietara egokituko dira: Baimendutako gehienezko azalera 12 m<sup>2</sup>-takoa izango da (barne aterpeen azalera balego) eta gehienezko altuera 2,5 m-takoa izango da. **Txabolen** aldeak erregularrak izan beharko dira, alde luzeena 4 m eta txikiena 3 m gutxigorabehera.

#### 7. artikulua.

**Txabolek** ondoko baldintzak bete beharko dituzte: Gutxienez 10 m-tako tartea, muga, bide eta errepidetara, alorrean indarrean dagoen legeriaren arauera.

Materialak:

Teilatua ahal baldin bada teilazkoa izango da edo bestela kolore gorriko fibrozementozkoa.

Paretak ladreiluzkoa edo blokez altsatuko dira. Kanpokaldeko paretak zuriz margotu beharko dira.

Leihoak eta beste zuloguneak txukundurik, margoturik eta kristalekin egon beharko dira.

Udalak aldizka **txabolen** kanpokaldea, sarbidea eta ingurunea txukuntzea agindu ahal izango du.

Sarrerak gehienez ere, 1,30 m-tako zabalera izango du.

Egurrezko egitura duten **txabola** prefabrikatuak onartu ahal izango dira, araudi honetan adierazitako neurriak errespetatzen badituzte, hala ere lizentzia lortzeko ezartzeko asmoa dagoen **txabola** prefabrikatuaren plano eta argazkiak aurkeztu beharko dira eta estetikoki paisaiari eragozten ez badio, Udalak lizentzia probisionala emateari buruzko erabakia hartu ahal izango du.

#### 8. artikulua.

**Txabolen** edifikazioak Udalak ematen duen obra-baimenen emateari lotuta egongo dira, eskaeraren egileak hirigintz baimenari honakoa erantsi behar diolarik: Lurzatiaren kokapen plano (1/5000 eskala) **txabolak** lurzatiaren duen kokapena, oin eta altxaera plano bat, eraikitzeko **txabolaren** neurriak dituelarik, eta eraikitzeko materialaren zerrenda bat eta lur sailaren jabetza kreditatu dagokion jabetza eskribaua aurkeztuz. Eraikina paisaia gutxien eragotzi dezaketean lekuan kokatuko da, beti ere udal zerbitzu teknikoek emandako iritzia jarraituz.

#### 9. artikulua.

**Ordenantza** honen babesean emandako baimenak, beti ere behin-behineko izaeraz emango dira, indarrean dagoen lurzorua Legearen 58-2. Artikuluan ezarritakoaren arauera, eta eraisketa bidezkoa denean, jabeek ez dute kalteordaina jasotzeko eskubiderik izango.

#### 10. artikulua.

**Txabolen** eraisketa dekretatu ahal izango du zonaldearen hirigintz garapenak haien exekuzioa galerazten duenean edo, inguruaren estetika, paisajea edo osasun publikoaren kontra egiten dutenean. Aipatu kasuetan, Udalaren agindu espresua dela medio, jabeak eraikuntza lurreratzeari ekingo dio bere kostura.

Lurreratzeke Udal agindua betetzen ez bada, Udalak lurreratuko ditu eraikuntzak, berorrek sortutako gastuak titulareak ordainduko dituelarik.

#### 11. artikulua.

Hirigintz haustetzat hartuko dira **Ordenantza** honetako eta alorrean indarrean dagoen legeriako edozein aginduren

kontrako iharduera guztiak.

Ez betetzeak hauste-espediente bat irekitzea eta dagokion zehapena ekarriko du, horretarako Lurzoruaren Legean, beronen garapenerako erreglamenduetan eta Prozedura Administratiboaren Legean ezarritakoa aplikaturik.

#### *12. artikulua. Itxiturak.*

Lurzatiak itxiturak aurrez udal baimena izan beharko dute. Finken itxiturak hesi edo zuhaizkak egingo dira 1,5 metrotako gehienezko altuerakin. Ganaduentzako itxiturak direnean, alabrezko itxiturak onartu ahal izango dira eta kasu hauetan, egurrezko hesolen bidez egingo dira itxiturak gehienezko altuera 1.5 m.takoa izango da

#### *13. artikulua. Bestelako baldintzak.*

1. Abere guztiak behar den bezala identifikatu eta erroldatuak izan beharko dute legeak horrela agintzen duenean.
2. Eraikina jardura mantentzen den bitarteko iraupena izango du. Hortik aurrera eskubide guztiak galduko lituzke.
3. Eraikinak ahal den izkutuen gera daitezten, Udalak beharrezko diren zuhaitz landaketak egitera behartzeko ahalmena izango du.

#### *14. artikulua.*

**Ordenantza** hau onartu aurretik eraikitako **txabola** guztiak bertan adierazten denarekin bat ez badatoz, ordenanazioz kanpo deklaraturik geratzen dira indarrean dagoen 1346/1976 Lur legearen 60. artikulularen arabera.

### XEDAPEN GEHIGARRIAK

**Ordenantza** honekin bat ez datozen eraikinak egingo balira, Udalak bota ditzake, gastuak jabearen gain izango liratekeelarik, 1976ko lurzoruaren legeak bere 184. Artikuluan eta Hirigintza Disziplina Erregelamenduaren 29. artikuluan dioenaren arabera.

### AZKEN XEDAPENA

**Ordenantza** hau, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den biharamunetik sartuko da indarrean.

**Arama**, 2005eko uztailaren 14a.—Alkatea.

(53) (7226)